

Gure enpresa aurrera eramateko beste lantoki bateko enpresarekin akordio batzuetara iritsi behar gara. Baina, bazkideak hasiera batean gu izango gara, naiz eta agian beste enpresa batzuetako hainbat nagusiekin bildu egin beharko garen, salmenta aurrera ateratzeko.

Adibidez, lehen mailako produktuak eskaintzen diguten enpresekin harremanetan egon behar gara, hala nola, metala eta kristala (beira) behar dugunerako. Material infragorriak eskuratu eta prestatzeko betaurrekoen kristal moduan beste enpresa batekin akordio bat edukiko dugu.

Aldiz, promozio eta komertzial modua, enpresaren bazkideak (guk) egingo dugu. Hasiera batean gu mugituko gara unibertsitate, ospitale eta anbulatorioetatik gure produktuak ezagunak bihurtzeko. Gainera, web orria edukitzeak ere erraztasuna ekartzen dizkigu eta hainbat iragarki jarriko ditugu, hau guztia hasieran gure kontura. Laguntza beharrekotan, beste elkarte batekin hitz egin beharko genuke gure produktuak iragartzeko.

Beste enpresetakoekin akordioetara iristen bagara, laguntza handiak izango ditugu, aurretik esan bezala, produktu eta baliabide gehiago eskuratzeko. Horregatik, beste elkarte batzuekin hitz ematea guztientzat onuragarri bihurtu daiteke.

Bazkideak, Olatz Letamendi, Maider Sanchez, Koldo Aramburu eta Ane Iturrioz dira.

- Koldo: Beste enpresekin elkar harremanetan jarri akordioetara iristeko.
- Ane: Diru kontu eta administrazioko gauzatzaz arduratzeko.
- Olatz: Makinariaren errebisio eta funtzionamenduaren arduraduna, gainera, produktuen amaiera ("visto bueno").
- Maider: Web orria, iragarkiak eta produktua ezaguna izatea zabaltzen duena, hau da, ospitaleekin harremanetan dabilena.